

**ANTOLAKUNTZA ETA TEKNOLOGI BARRIAK**48370 BERMEO  
BIZKAIA

Erref.: 2018/IDA\_DEK0671

**JAGOKON SAILARI BARNE KOMUNIKAZINOIA**

2018/09/21(e)(a)n **2018 - 000001565** zenbakia daukan ALKATETZA DEKRETUA onartu dala jakinarazoten deutsu(e)t:

Xedea

2018o martxoaren 5eko 244. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioak aldatzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2018ko martxoaren 5eko 244. zenbakidun Alkatetza Dekretuz, alkatearen ahalmenak beste organoetan delegatzea onartu zan.

Bigarrena: 2018ko irailaren 17an, Idazkaritza Saileko AOTk delegazio horreek aldatzeko erabagi proposamena egin dau.

**Argudioak**

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, bere 21.3 artikuluan honakoa xedatzen dau: "El Alcalde puede delegar el ejercicio de sus atribuciones, salvo las de convocar y presidir las sesiones del Pleno y de la Junta de Gobierno Local, decidir los empates con el voto de calidad, la concertación de operaciones de crédito, la jefatura superior de todo el personal, la separación del servicio de los funcionarios y el despido del personal laboral, y las enunciadas en los párrafos a), e), j), k), l) y m) del apartado 1 de este artículo. No obstante, podrá delegar en la Junta de Gobierno Local el ejercicio de las atribuciones contempladas en el párrafo j)".

Hori horrela, eta eraginkortasuna hobetzeko asmoz, ahalmen batzuk delegatzea erabagi eban alkateak.

Bigarrena: Baina eguneroko funtzionamenduan, eraginkortasuna hobatzeko, onartutako delegazio batzuk aldatu eta beste barri batzuk onartzeko beharrezana ikusi da, beti be lehen aitaturako 7/1985 Legeko 21.3 artikulua aurreikusten dauzan aukerekaz bat.

**Erabagia**

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: 2018ko martxoaren 5ko 244. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioak aldatzea eta, ondorioz delegatutako ahalmenak modu honetan ixtea:



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E2000131E000Y6C7N8E8C007

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 21/09/2018  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2018  
14:24:57

DOCUMENTO: 20180078304

Data: 21/09/2018

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

1.- Tokiko Gobernu Batzarraren alde, ahalmen honeek delegatzea:

- Urigintza eta Ingurumeneko lizentziak onartzea, obra txikiak izan ezik.
- Ordezko exekuzinoa espedienteak hasia eta amaitzea.
- Egite aginduak ematea.
- Urigintza legalitatea berreskuratzeko espedienteak hasia eta amaitzea.
  
- Urigintzako instrumentuen onarpena:
  - o Planeamendu Orokorra garatzeko instrumentuen onarpena.
  - o Urigintz kudeaketako instrumentuen onarpena.
  - o Urbanizazio proiektuen onarpena.
  
- Hurrengo gastuak onartzea:
  - o Dirulaguntzak emateko deialdiak onartzea eta ebatzea, dirulaguntza honeen ebatzpenen onarpena ezik: Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntzak eta Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko dirulaguntzak.
  - o Kuota ezbardinak onartzea eta xedatzea (jabe alkatetari jagokezanak, etab.).
  - o Bazkide kuota ezbardinak onartzea eta xedatzea.
  - o 5.000 eurotik gorako gastuak (BEZa barne) onartzea eta xedatzea.
  
- Ordenantzen urraketen ondorioz, Udaltzaingoari ez jagokezan bestelako zehapen edo zigor espedienteak hasi eta amaitzea.
- Langileeri diziplina espedienteak zabaldu eta amaitzea.
  
- Langileen eskari honek ebatzea:
  - o Kontsumo eskariak
  - o Lanaldi murrizketak.
  - o Eszedentzia eskariak.
  - o Edoskitze lizentziak.
  - o Lanpostua aldatzeko eskariak
  - o Langileen ikastaro baimen eta ordainketa eskariak
  
- Langileen lan egutegiak onartzea.
- Langileeri Espediente informatiboak edo argitze espedienteak zabaldu eta amaitzea.
  
- 5.000 eurotik gorako (BEZa barne) kontratazino espedientetako baldintza agiri, deialdi eta esleipenen onarpena, kontratuen luzapenak ebatzea eta kontratazinoaren exekuzinoagaz lotutako besteko erabagiak hartzea, esleipen prozeduran egon leikezan galderak erantzutea izan ezik.
  
- Obra eta zerbitzu proiektuak onartzea.
  
- Jabari publikoaren okupazino lizentziak ematea, beti be 3 egunetik gorako iraupena daukeenean, obra lizentzia bategaz lotura ez badauka, ezta kultur ekipamendu bategaz.
- Emakida espedienteak hasi eta esleipenak onartzea, eta emakiden eskualdatzeak, bajak eta berreskuratzeko onartzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E2000131E000Y6C7N8E8C007

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 21/09/2018  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2018  
14:24:57

DOCUMENTO: 20180078304

Fecha: 21/09/2018

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- Ondasunen eskuratzea onartzea, eskuratze modua edozein izanda be.
- Ondasunen salmenta espedienteak hasi eta salmenta onartzea, eta eskaerak ebaztea.
- Egurren aprobetxamendurako lizentzien eskariak ebaztea.
- Eraikinen lan egutegiak onartzea.
  
- Tabernen ordutegia onartzea, jai eta egun berezietako ordutegia eta bere aldaketak ezik.
  
- Lankidetzak hitzarmenak onartzea.
  
- Lehiaketen deialdiak eta irabazleak ebaztea.
  
- Protokoloak onartzea.
  
- Prozedura eta inprimaki eredu normalizatuak onartzea.

2.- Zinegotzi Delegatu guztiengan ahalmen hau delegatzea:

- 5.000 euro arteko gastuak (BEZa barne) onartzea, eta esleipenak onartzea eta xedatzea.
- 5.000 euro arteko kontratazino espedienteetan (BEZa barne): kontratazino espedienteen hasiera eta beharrezkoaren justifikazioa onartzea, baldintza agiri, deialdi eta esleipenen onarpena, kontratuen luzapenak ebaztea eta kontratazinoaren exekuzioagaz lotutako besteko erabakiak hartzea
- 5.000 eurotik gorako kontratazino espedienteetan (BEZa barne): espedientea hasiera eta beharrezkoaren justifikazioa onartzea.

3.- Urigintzako Zinegotzi Delegatuarengan, ahalmen hau delegatzea:

- Obra txikien lizentziak ematea.
- Ibi (pasabide) lizentziak emon eta kentzea.
- Jabari publikoaren okupazio lizentziak ematea obra lizentziekaz lotura zuzena badauke edo terrazak eta mahaiak baimentzeko bada.

4.- Kontu batzordeko Zinegotzi Delegatuarengan, ahalmen honek delegatzea:

- Ordainketen agintzea.
- Zerga, tasen eta salneurri publikoen kitapenak eta padroien onarpenak.
- Frakzionamendu eta atzerapenen onarpenak.
- Kitapen tributarioen kontra aurkezten diran errekursoak ebaztea.
- Langileen soldata aurrerapenak eta laguntza sozialen onarpenak.
- Administrazioaren ondare erantzukizuneko espedienteen erresoluzioa.
- Diruzaintzako arkeoak onartu.
- Fakturak onartu.
- Fidantzak itzultzeko eskariak ebaztea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatzen ahal dozu.

Kodea:  
07E2000131E000Y6C7N8E8C007

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 21/09/2018  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2018  
14:24:57

DOCUMENTO: 20180078304

Fecha: 21/09/2018

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



5.- Kulturako Zinegotzi Delegatuarengan, ahalmen hau delegatzea:

- Kultur ekipamenduen erabilera baimentzea.

6.- Euskerako Zinegotzi Delegatuarengan, ahalmen hau delegatzea:

- Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntzak eta Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko dirulaguntzak ebaztea.

7.- Zerbitzuetako Zinegotzi Delegatuarengan, ahalmen hau delegatzea:


- Jai eta egun berezietako tabernen ordutegia eta bere aldaketak onartzea.

**BIGARRENA:** Erabagi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eragina izan daian, interesduneri jakinarazotea.

**HIRUGARRENA:** Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretu honen barri emotea

Honen guztiaren barri emoten deutsu(e)t jagokozan ondorioetarako.

**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinean .

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E2000131E000Y6C7N8E8C007</p>	<p><b>Sinadurea eta data</b></p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/09/2018 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2018 14:24:57</p>	<p>DOCUMENTO: 20180078304</p> <p>Fecha: 21/09/2018</p> <p>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia</p>
			